

EROSKI-K FRANKIZIA ERAKO BESTE SUPERMERKATU BAT IREKI DU ASTIGARRAGAN

- **Frankizia erako denda berriak elikagai zerbitzu osoa emango die kontsumitzaileei fabrikatzaileen markekin, kalitatezko marka propio batekin eta freskoetan duen lidergoarekin**
- **EROSKIk aurreko urteetako frankizien irekiera erritmoari eutsi dio. Gauzak horrela, 294 inaugurazio baino gehiago egin ditu joan deneko bost urtean, eta dagoeneko frankizia erako 600 supermerkatutik gora ditu**
- **EROSKIk Frankiziatzaile Onenaren Saria jaso du aurten, elikaduraren kategorian, Frankiziatzaileen Espainiako Elkarteak emanik**

Astigarraga, 2023ko irailaren 14a.- [EROSKIk](#) frankizia erako beste supermerkatu bat inauguratu du Kontxa Etxeberria plazako 7.ean, Astigarragan (Gipuzkoa). EROSKI/City izenekoa da saltokia, eta, bezeroarenganako arreta pertsonalagoa eman ez ezik, tokian tokiko produktuen eta sasoiko elikagai freskoen alde apustu indartsua egingo du; horretaz gainera, elikagai osasungarriak sustatuko ditu, eta dirua aurrezteko modu berriak eskainiko ditu eguneroko erosketetan. Saltokiak zazpi langile izango ditu.

Supermerkatuak produktu sorta zabala eskainiko du, ekoizle liderren markakoa, marka propiokoa eta tokiko ekoizleena, eta ia 300 metro koadro ditu. Horretaz gainera, elikagai freskoen eskaintza zabala edukiko du; bereziki, sasoiari sasoiko eta tokiko frutena eta barazkiak, eta erreferentzia osasungarriek garrantzia hartuko dute, produktu ekologikoen sorta zabalagoa izango baita. Saltokiak, era berean, ogi eta opil egin berriak izango ditu, bezeroei freskotasunik handiena bermatzeko.

Hilero-hilero, eskaintzak eta sustapen kanpainak izango dira, kontsumitzaileei aurrezten laguntzeko. Aurrezpen horretan, EROSKI Cluba da erakusgarri behinena. Bezero-bazkideak markarekin fidelizatzeko programa da, eta oso sustapen erakargarriak ditu, baita Travel Club txartelak lehendik zituen abantaila guztiak ere.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

403.800 kontsumitzaile baino gehiago dira kooperatibako bezero-bazkideak, eta EROSKI Cluben abantailak ikusten ari dira dagoeneko Gipuzkoan.

67 frankizia inauguratu ditu 2022an

EROSKIk 67 frankizia inauguratu ditu 2022an. Guztira, 12 milioi euro inbertitu ditu, eta 397 lanpostu sorrarazi. Hedapen horren bitartez eta denda propioen sarea eraldatuz, bultzada indartsua hartu du EROSKIren Zurekin eredu komertzialak, belaunaldi berriko dendak ezaugarritzen dituenak.

EROSKIren frankizia sareak 45 urte bete ditu, eta aurreko urteetako frankizien irekiera erritmoari eutsi dio. Gauzak horrela, 294 inaugurazio baino gehiago egin ditu joan deneko bost urtean, eta jada frankizia erako 600 supermerkatutik gora ditu. Hala, jarraitzen du frankizien sarea hedatzen, fokua lurralde hauetan ipinia duelarik datozen urteetarako: Katalunia, EAE, Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Levante. 2023ko ekitaldian, EROSKIren asmoa da 65 frankizia inauguratzea.

Saria Espainian elikadura arloan dagoen frankiziatzaile onenari

EROSKIk Frankiziatzaile Onenaren Saria jaso du aurten, elikaduraren kategorian, Frankiziatzaileen Espainiako Elkarteak emanik. Sari horrek balioan jartzen du frankizia hartzaileek jasotzen duten babes eta aholkularitza. EROSKIk frankiziei ematen dien balio bereizle horiek sarearen bidez eta marketin plan sendo batez lortu ditu, baita, azken buruan, frankizia sarearen kudeaketa bikainari esker ere.

Nazioartean ospea duten sari hauen helburua da negozio modalitate honetan jarduten diren aktore nagusiak balioan jartzea eta haien lana aitortzea.

Lankidetzaren hitzarmenak

Kooperatibak eusten die Enpresaburu Gazteen Elkartearen Espainiako Konfederazioarekin (CEAJE) dituen lankidetzaren hitzarmenei, enpresari gazteen ekintzaitza lagundu eta sustatzeko, eta akordio bat du ATArekin, hau da,

Enpresarien eta Langile Autonomoen Elkarteen Espainiako Federazioarekin. Hitzarmen horiekin, ekintzailea indartzeko konpromisoa hartu ez ezik, EROSKIk autonomia erkidegoetako ekonomia garatzen lagundu nahi du.